


Joxe Azurmendi •

Filosofoa.



«PSOEk zerbait egingo duen itxaropena dut»

ETAk su-etena atzera botako zuen beldur banintzen ere, ezustean harrapatu nauela aitortu behar dut. ETAk su-eten muga-gabea aldarrikatu zuenean esperantza izan genuen zerbait aurreratuko zela, batez ere, presoen gaiaren inguruan, baina ez da ezer egin. Azpimarratzekoa da PPK era PSOEk jarrera itxia izan dutela, eta estrategia hori mantentzeko prentsaren laguntza izan dutela.

Etorkizunari begira aipatu behar dut ETAk zer egin behar duen ETAk jakin behar duela. Madrilgo Gobernua izan beharko litzateke zerbait egin beharko lukeena, baina badakit ez duela ezer egingo. Eta orain egingo balu ez dakit zer pentsatuko nukeen. Bestalde, nik itxaropena dut PSOEk zerbait egingo duela. Hala ere, nahiago nuke lehenago egin izan balu. Horrez gain, Lizarra-Garazin dau den alderdiek orain arte izan dituzten proiektuei eutsi behar die. Gainontzekook, zibilok, orain arte bezala jarraitu behar dugu, itxaropenari eutsiaz, eta gobernu irresponsable baten aurrean gaudela salatuz.